

PRENTSA-DEIALDIA

UEUko [Ekonomia Sailak](#) bi hitzaldi ireki antolatu ditu Eibarko Udako Ikastaroetan, "[Lidergoa, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak](#)" ikastaroaren osagarri gisa:

- **BIHAR** Uztailaren 4an, arratsaldeko 17:30etan, Eibarko UEUren Ikastetxe Nagusian (Markeskoa) [Jabier Lertxundik](#) ekonomian doktoreak eta Itzarri Consulting-eko kideak "[Ideia batzuk krisi madarikatu hau gainditzeko](#)" saioa emango du.

“Transmedia kontakizunak, komunikazio esperimentuak”

Lander Arbelaitz : “ Asmatu beharreko gauzetako bat bertan ez zegoenari ere mugimendu guzti horren parte zela sentiaraztea izan zen”

Transmedian azpimarratzen den gauzetako bat ekoizlearen eta erabiltzailearen hartzaileraren arteko erlazio berriak dira, Askegunearen kasuan nola ematen dira erlazio horiek?

Nik uste duk Askegunean beste mugimendu sozial batzuetan ikusi izan dena gertatu dela, fenomeno bat; adibidez 15M edo bestelako mugimendu herritar batzuetan gertatu izan dena. Mugimendu horiek beraien ahotsa altxatzeko teknologia berriak erabiltzera heldu dira, teknologia horiek eskuetan ditugun tresnak dira, eta horrek eragin dezake harreman mota berri batzuk sortzea. Ez da soilik norbaitek mezu bat bidaltzea eta beste batek kontsumitzea, baizik eta mezua bidaltzen duenak elikatzea edo gero hartzailleak hartu eta bueltak emateko bezalako mezu bat sortzea. Hau da, informazioa bidaltzen da, baina ez erabiltzailearengana heltzerakoan hor amaitzeko baizik eta ziklo berri batzuk hasteko. Adibidez, Askegunean argi ikusi zen komunikazio lan talde bat sortu zenean garbi zegoen Espainiako estatuari begira horiek gai horri buruz zentsura bat aplikatuko zutela, orduan erabaki zen eskura zeuden tresnez baliatzea, behintzat informazioa ateratzeko eta hortik oihartzuna handitzen joateko. Elkartasunean eta konpromisoan oinarritutako mugimendu bat denez asmatu beharreko gauzetako bat bertan ez zegoenari ere mugimendu guzti horren parte zela sentiaraztea izan zen, ez bakarrik ikusle hutsa. Beraz, Askeguneko kontutik jendeak mezuak bidaltzen zituztenean, etengabe eskatzen ziren sortu berri zen bideo bat inglesera edo gaztelerara itzultzeko laguntza, adibidez. Sarea jendeak egin ditzaken ekarpen zehatzak bideratzeko ere erabili nahi zen. Aldi berean adierazten genuen gauzetako bat bideogintza ezagutzen zuenak edo kartelak egiten ona zenak parte hartzeko momentua zela eta dela. Adibidez jendeak fotomontajeak eginda bidaltzen

zituen eta guk aldi berean hori hartu eta zabaldu egiten genuen, beraz, etengabe elikatzen zen mugimendu bat da.

Zabalkuntzak arrakasta izateko informazioaren autogestioak badu bere garrantzia, hau da, Askegunean bertan daudenak izatea informazioaren kudeatzaile eta iturri zer eragin dauka proiektuan?

Hori oso garrantzitsua da, norbera izatea norberari buruz ematen den informazioaren zabaltzaile. Komunikatiboki lan bat egin behar zela erabaki zenean, helburu batzuk lortu nahi baldin baziren, gertatzen ari den kasua esplikatuz beharra zegoen. Guk ez badugu gurea esplikatzen, medio handiak etorriko dira eta beraiek esplikatuko dute, beraien hitzekin esplikatuko dute. Beraz, gai zehatz honi buruz iritzirik edo ezagutzarik ez daukan pertsona bati lehenengo heltzen zaiona denok buruan ditugun hedabide handi hauen mezua baldin bada, hori izango da buruan geldituko zaiona. Horretaz konturatu ginenean lehenengo egin beharrekoa hemen zer gertatu den azaltzea izan zen, zeintzuk ziren 8 gazte horiek eta nola planteatzen genuen. Oso garrantzitsua da zuk ematea zuri buruzko informazio fidagarria, hor aldi berean ere esaten genuen, kontatu behar da dena, modu batean non gero jende batengana heltzerakoan ez esatea "bai baina zerbait egingo zuten", dena esplikatuko dugu, ze akusatzen dieten, zer gertatu den, zer esaten duten. Guk ez daukagu arazorik egiarekin, beraz, dena kontatuko dugu inori inongo dudarik ez uzteko moduan eta bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Helburua mezu hori ahalik eta gehien elikatzea da, ahalik eta jende gehiagorengana iristea. Hasieran, Donostiako jendearengana heldu behar zela ikusi genuen. Kontu hau gertatzen ari zen boulevard-ean eta Donostiaren %80a ez zekien ezer. Pixkanaka ezagutza hori hazten zijoan neurrian, hurrengo pausoa Euskal Herrira iristea zen. Ez zen Donostiako gazte hauen gauza bakarrik, hemen gatazka politiko honekin arazo potolo bat dago eta oraindik jendea kartzelara joaten ari da bere garaian Segikoa izan zela egotzita. Horregatik bista altxatzen saiatu behar gara, gaia planteatzen eta Madrili faktura pasarazten eta horretarako garrantzitsua da Katalunian, Madrilen eta toki guztietan jendea enteratzea, baita mezu zabaltzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetan ahalik eta jende gehienari helaraztea ere.

Askegunea aurrera eramán ahal izateko irudia oso garrantzitsua izan da, irudi bat edo zentzua ematea, jarrera bat erakustea. Nola eraiki da hori?

Askegunearen inguruan bildu zen komunikazio taldea oso espontaneo izan zela esan beharra dago, ez zela izan lehenetik lotutako jende batek osatua, denetarikoa jendea zegoen. Horrek gauzak modu berri baten planteatu ahal izatea ekarri zuen. Gauzak beti oso eskema antzekoan ari ginelaren ondorioa daukat, lehen gauzak horrela egiten zirelako. Askegunearen kasua iritsi zenean, planteamendua oso ezberdina zen eta garai politiko berriak direla aldarrikatzen genuen. Inongo biolentziarik ez erabiltzako eta herri harresia planteatzeko intentzio garbia zegoen, planteamendu bera ezberdina zen, beste era ezberdin bat bezala irudikatu behar zela erabaki zen. Ezin da izan periodikoko argazkia ikusi eta esatea "son los de siempre". Betiko estetika, betiko presoek argazkiak, betiko pankarta nahiko erasokorrak. Momentu horretan jendearen arteko *brainstorming* bat sortu zen, jendeak oso lan ona egin baitzuen. Horri buelta asko eman ahal zitzaizkion, gauza ezberdin bat bezala irudikatu behar genuen, eta hortik atera ziren kamiseta laranja, globo laranja... Berez ideia bota zenean jende askorentzat txokantea izan zen, gainera planteatu zutenak ere oso beldurtuta zeuden ideia gustatuko zenaren zalantzan. Pankarta guztiak era positiboan planteatzen hasi ziren, mezuak, logoa asmatu behar zen... Ordura arte auziperatuen babes taldea besterik ez zegoen, horren inguruan aritzen zen jende bat bazegoen. Baina ezin genuen planteatu Donostiko gauza bat bezala, zerbait zabalago bat bezala proposatu beharra zegoen, orduan asmatu zen Askegunea Twitter kontua, Facebook kontua... Azken finean taldean irizpideak garbi daudenean sortzen da beste gutzia.

Transmediatasunaren adierazgarrietako bat informazio/komunikazioa medio edo plataforma ezberdinetan ematea hain zuzen, plataforma batzuk sare bidezkoak izango dira baina beste batzuk kalean egin beharrekoak, jarri dezakezu adibideren bat?

Guk ez genuen transmedia kontzeptuaz hitz egiten, zentzu komunezko estrategia bat zen, horrelako estrategia bat abiarazten denean, lehenengo ondorioa prioridadeak markatu behar

direla da, hain zuzen, ze gauza lortu behar diren eta nola lortu behar diren erabakitzea. Prioridade horiek finkatzen direnean eta bide orri txiki bat egiten denean hasiera defentsibara antolatzen da eta ondoren dator eraso, hots, medioei gu hasiko gara deitzen. Eskura ditugun tresna guztiak erabiltzea da beharrezkoa, eskuorrietatik abiatu, twitterreko mezuak hizkuntza ezberdinetan bidali edo bideo bat egiteraino. Jendeak eduki hori itzuli ahal izateko plataforma batean eskegitzea ere ahalbidetu beharra dago, azkenean baliabide guztiak helburu finko batentzat erabiltzeko elkar elikatzea. Kartelak egiten genituenean adibidez, jendeak twitter zuzen erabiltzeko irizpideak idazten genituen, adibidez etiketa jakin bat erabiltzeko adierazpena. Kaleko kartel batetik sarera bideratzen da eta bestalde, sarean mezu asko biltzen zirenean eta askegunean jende asko zegoenean proiektore bat jarri zen eta proiektorean jartzen ziren iristen ziren twitter mezu guztiak, jende erreala plazan zegoen sarean toki guztietatik bidaltzen ziren mezuak irakurtzen. Helburua baliabideak etengabe kausa berdinaren alde erabiltzea da eta kausa ilusioa transmititzea da. Transmittitu nahi zena gauza potolo bat egiten ari ginela zen, Donostiara geroz eta jende gehiago ekartzeko edo inguruko jendeak esatea “nik hor egon behar dut” eta hori egunez egun lortzen zen, azkenean zurrunbilo bat elikatzen da.

Nola baloratuko zenituzke lorpenak? Eta akzio komunikatiboari dagokionez etorkizunera begira nola ikusten duzu antolakuntza? Berrikuntza bilaketa etengabea da?

Balorazioa oso ona egiten dut, hasierako abiapuntua Donostiako jendearengana heltzea zelako. Errusiako telebistan agertu zen, Alemaniako, Italiako, Greziako web guneetan ere bai eta Euskal Herri osoa enteratu zen edo behintzat zati handi bat. Aldi berean Espainiar Estatuko hedabideek ere oihartzuna egitea lortu zen. Beraz, nahiz eta aurkako hitzak erabili gutxienez jendearengana heltzea lortzen da eta buruari bi buelta eman nahi dizkionak emango dizkio, konturatuko da hor zerbait gertatzen hari dela. Hortik nazioartera zabaltzea lortzen denean, hasierako planteamendura hurbiltzen gara, hau da, noizbait atxiloketak gelditzea. Momentu bat helduko da non atxiloketak agintzen dituenak faktura ordaindu beharko duela atxiloketa horiek agintzeagatik, eta faktura hori handia oso handia denean atxiloketak geldituko dira. Mezua asko zabaltzea lortzen bada faktura ordainarazten hasi gara. Gainera mugimendu batentzat komunikazioa oso garrantzitsua da eta uste dut jende asko konturatu zela horretaz Euskal Herri mailan. Jende asko konturatu da medio horiek daukaten estrategikotasunaz, ondo erabiliz gero mezua norberaren ahotik besteengana heltzea lortzen dela. Aldi berean lortu zen lan egiteko modu berri bat finkatzea, hasiera baten esan dudana bezala, mezuak era positiboan planteatuz. Hori Donostian hasi zen eta Ondarrun ere lortu zen, beste toki batean ere jendea trebatzen hasten da lan egiteko modu batean, eta horrek azkenean aurrera begira fruituak emango ditu seguru. Gure helburua Donostian gertatutakoaren ondoren Donostian bertan egin genuen bezala izatea da, bai twitterra, facebooka eta webgunea kudeatzeko momentuan. Hurrengoan etorriko dena ez dadila berriro zerotik hasi, beraz, pasaitzak ematen zitzaizkien, planteamendua azaltzen zitzaien... Hau dena aurrera doa eta ez da Donostia mailan bakarrik gelditzen, Euskal Herri mailakoa da, hortaz, nik uste dut azkenean oihartzuna handitzen doala. Orain jendeak badaki Iruñean zerbait gertatuko dela eta lehen adibidez ez ginen horretaz ohartzen. Hasierako helburua pixkanaka lortzen ari garela argi dago eta bi hilabete bakarrik pasa direla kontuan izan behar dugua. Denbora gehiago pasatzen denean ikusiko dugu.

Ane Ablanedo Larrion: “Hezkuntza aldatuta, gizartea aldatu daiteke”

Gaur hasi da, *Hezkuntza-sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta gako izeneko ikastaroa* Ane Ablanedo Larrionen eskutik. UEUK antolatutako udako ikastaroen hirugarren egunak lehenengoak bezalako indarra du. Gaur eta bihar beste hainbat gauzeekin batera gaur egungo hezkuntza sistema aztertu eta sistema alternatiboak eskainiko dituzte hezkuntza sistema hobetzeko eta heziketa on bat jasotzeko modua badagoela erakusteko, beti ere umeen beharretara egokituz.



udako
euskal unibertsitatea

Gaur egungo sistemak gabezia asko dituenaren dudarik ez du egiten Ane Ablanedok eta hau mantentzearen arrazoi nagusia “botereari komeni zaiolako da”, dio Ablanedok. Gure gizartean era bat barneratuta dugu, eta modu aseptiko batean onartzen da, umeek eserita egon behar dutela ikasgela barruan eta ez beste modu batean antolatuta. Hezkuntzak pertsonak hezteko eta gizarte bateko parte izateko tresna izan beharko lukete baina gaur egungo sistemaren helburua ez da hau garatzea: “Gizaki bezala behar dugun garapen pertsonala edo potentzia humano guztia garatzea ez da sistema honen helburua”. Ikastaro honetan behin onartuta helburuak aldatu egin beharko liritekeela, bigarren pausu batera pasatu dira, benetako helburuak zein diren finkatzera, bizitzako helburuak direnak: “bizitzen ikastea, zoriontsu izatea, bizi poza izatea... izan beharko lukete sistemaren helburu nagusiak eta ez zerbitzari bilakatzea”.

Sistemaren aldaketa beharrezko ikusten du eta errotik kendu beharko litzatekeela uste du Ane Ablanedok baina; “agian errotik aldatzeak kexu konstantea duen posiziora eraman gaitzake, ez dena bat ere komenigarria”. Beraz, sistemaren barruan guztiok aldaketa egin dezakegunaren ideia hobesten du, izan ere badira irakasleak sistemaren barruan aldaketak egiten ari direnak eta beste batzuk sistema gaizki dagoela onartu eta “ezin da ezer egin” bezala erantzuten dutenak. Kontuan hartu beharko litzateke, ume guztientzat pedagogia idealik ez dagoela eta beraz, “pertsonak dira hezkuntza ezberdin bat aurrera ematen dutenak, irakasleak berak”. Irakasleak umei eskaini diezaieketen jakintza ikastaroan ikusi duten beste puntuetako bat izan da eta une jakinik ez dagoela dio Ablanedok: “pertsonak harremanen bidez ikasten dugu, guztiok gara harreman horiek aldatzako gai eta inork ez digu baimenik eman behar”.

Askotan uste da umeak ikasteko gogorik ez duela eta jolasa dela bere egiteko bakarra, baina agian jolasarekin beste gauza guztiekin baino gehiago ikasten duela izan daiteke. Izan ere, umeek beren barnean dute ikasteko nahia, ikasteko gogoia eta “bere genetan du haztea”. Hezitzailearen lana askotan ez da ebaluatzen eta gehiegi eskatzen zaie baina, hezitzaileen gaur egungo lana aldatuko balitz eta ume horiek behar duten heziketa jasoko balute hezitzaileak baldintzak jarrita eta ez hezitzaileari esker, agian hezitzailearen irudia aldatuko litzateke.

Hezitzaileak “pixka bat desbalarizatuta” daudela dio Ablanedok eta, “sistema berak ikasleak domestikatzeko tresnak dituela esaten den moduan hezitzaileekin ere baditu”. Bi aldeetako presioa jasotzen dutela aitortzen du, alde batetik sistemak ezartzen dietena eta beste alde batetik gurasoek eskatzen dietena. Izan ere, gurasoek gaur egun uste dute ez direla gai beren seme alabek hezteko: “delegatu egiten dute eta eskolan ikasiko dutela esan, beraiek ez dakitela uste dutelako”.

Finlandiako sistema eredugarri izan beharko lukeela askotan entzuten den ideia baldin bada ere, Euskal Herrian proiektuak gauzatzen ari dira pixkanaka. Hala ere, “hezkuntzan inbertitzen den dirua eta denbora, eta ondoren dakarren errekonozimendua, hemen daukagunarena baino mila aldiz handiagoa da Finlandian”, dio ikastaroko irakasleak. Hezkuntzaren kontrola duenarentzat oso garrantzitsua da bere horretan mantentzea: “hezkuntza aldatuta, gizartea aldatu daiteke”. Hori dela eta hezkuntzan ez da inbertitzen beharko litzatekeen adina.

Aitzol Astigarraga Pagoaga: “Robotika nabigazioaren ikuspuntutik lantzea izan da aurtengo gure helburua”

“Nabigatu LEGO NXT robotekin” izeneko ikastaroa irakatsi da aste honetan UEUko Udako Ikastaroen 41.edizioan. Aitzol Astigarraga informatikari eta “Robotika eta Sistema Autonomoak” taldeko kidea izan da ikastaroaren arduraduna eta berarekin hitz egin dugu, robotikaren eta LEGO NXT roboten inguruan ikasteko.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai
Tel.: 629 48 24 74
komunikazioa@ueu.org



ueu

udako
euskal unibertsitatea

Zeintzuk helburu zenezkan ikastaro honekin?

Ikastaro honen helburua zen robotikan lehenengo pausuak ematen laguntzeko ikastaroa eskaintzea. Hau da, robotikan interesa duen edonori, modu praktikoa batean, lehenengo pausuak ematen laguntzea. Gainera, aurtun, helburu berezi bezala jarri genuen robotika lantzea nabigazioaren ikuspuntutik.

Ikastaroan ikusi ditugun robotak, robot mugikorak dira. Eta robot hauen helburuen artean daude: puntu batetik bestera joaten ikastea, marra bat jarraitzen jakitea eta beste mota batzuetako estrategia batzuk jarraitzen jakitea, besteak beste. Laburbilduz, robotikarekin hasi ginen eta gero nabigazioaren munduan sartu, hau zer den ikasiz.

Egin dituzuen gauzen artean, zeintzuk izan dute erantzun onena ikasleen partetik?

Lehenengo egunean sarrera egin genuen, LEGO roboten kaxak zabaltzea eta barruan zegoena ikustea. Bigarren egunean praktika txiki bat egin genuen eta hirugarren egunean goiz osoko praktika bat. Eta esango nuke, momentu horretan bai hasi zirela modu autonomoan lanean eta buru-belarri jarri zirela, ia-ia kafea hartzeko astirik hartu gabe.

Robotikaz ez dakien pertsona bati nola azalduko zenioke zer den LEGO NXT robot bat?

LEGO NXT da robotak eraiki eta programatzeko kaxa bat. Eskaintzen duena da modu errazean robotak eraikitzea. LEGO piezekin denok ibili gara jolasean ez? Ba, berdin berdina da baina horretaz gain dauzka ordenagailu txiki bat, motorrak eta sentsoreak. Hori da robotak muntatzeko behar dugun dana.

Zertarako balio dezake horrelako robot batek etorkizunean? Gaur egun zerbaiterako erabiltzen dira?

LEGO robotak gaur egun erabiltzen dira, batez ere, irakaskuntzan. Merkatura begira, ez daude aplikazioak sortzeko kaxa robotikorik. Baina, hezkuntzarako oso baliagarriak dira. Guk erabiltzen ditugu robotikako kontzeptuak lantzeko, proiektuak garatzeko etab. Adibidez, badago robot bat oso ezaguna, Roomba deitzen dena. Robot aspiradora bat da, eta guk LEGOen bidez oinarritzko algoritmoak eta oinarritzko funtzionatzeko moduak simulatzen ditugu gure robotekin.

Gizakia eta robotaren arteko harremanean oinarrituta, norainoko “adimena” edo autonomia izatera irits daiteke robot bat?

Eztabaida ez da batere erraza, zeren lehenbizi konkretatu beharko genuke ea zer den adimena izatea. Aurrerapauso handiak ematen ari dira alor horretan. Modu autonomoan lan egiten duten robotak badaude: Roomba berak etxea garbitzen dizu eta ez duzu bertan egon beharrik horretarako, lantegietan ere badaude modu autonomoan lan egiten duten robotak ere, etab. Kontua da, gizaki eta roboten arteko harreman horretan, robotak nahiko urruti ditugula. Guk hizkuntza erabiltzen dugu komunikatzeko eta robotek gure hizkuntza ez dut ezagutzen. Baina, adibidez, gu orain horretan gabilta lanean: hizkuntza naturala erabiliz (euskara erabiliz) nola komunikatu gaitezkeen robotekin, nola aginduak eman eta nola robotak berak bere egoeraren berri gu elarazi etab. Eta horretan, aurrerapauso batzuk emanez gero gure arteko harremana asko hobetuko litzake. Imaginatu, etxera iristean Roomba robot batek esatea “arratsaldeon, zer moduz joan da eguna?”, hori jada, beste goxotasun bat izango litzateke.



udako
euskal unibertsitatea

BIHARKO AGENDA AGENDA, Uztailak 4, Osteguna

Hezkuntza sistema alternatiboak, gizarte aldaketarako tresna eta

gakoak

09:00-17:00

-Gaiak:

- Hezkuntza sistemaren historia laburra.
- Egungo sistemaren gaineko hausnarketa. Baloreak: agerikoak eta ezkutukoak. Hezkuntza sistemak eta ideologia.
- Eskola errealtate konbentzionalarekiko diskurtso kritikoa.
- Hezteia vs adoktrinatzeta. Hezitzailearen funtzioa..
- Hezitzaile-ikasle arteko harreman demokratikoa. Autoritatea vs autoritarismoa. Ezkutuko boterea.
- Sozializatzea, eskolatzea?
- Haurrak berezkoa du ikasteko gogoia. Ez diezaiozun jakin mina hil. Haurraren interesetatik abiatutako kurrikulum-a.
- Hezitzailearen egitekoa, haurrak berezkoa duen hazkuntza prozesuan lagun izatea besterik ez da.
- Haurra prozesuaren protagonista. Haurraren erritmo, garapen eta indibidualtasunarekiko errespetua.
- Beste eskola bat posible da.
- Pedagogia "berriak". Montessori, Freinet, Paulo Freire, Ivan Illich. Neill.
- Sistemaz kanpoko eskola eredu ezberdinak: Summerhill, Waldorf, Montessori, Paideia, Eskola demokratikoak, eskola txikiak. Eskola eredu aldatzen duten errealtateak.
- Euskal Herriko eskola alternatiboak.
- Sistema barrenean ere, iraultza posible.

-Irakaslea:

- Ane Ablanedo Larrion. Euskara eta Literatura irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Psikoterapia eta Prebentzioan aditua, "Hazkuntza laguntzeko ikastaro"en koordinatzailea. UEUKidea.

Lidergoa, motibazioa eta talde-lana: pertsonen eta erakundeen eraldaketarako teknikak

09:00-13:00

- Lidergotza - teoria.
- 360oko lidergo inkesta.
- Lidergotzaren inguruko bideoa "Tximeletaren zirkua"
- Motibazioa – Zer da? Mota eta teoriak.
- Motibazioaren inguruko bideoa "Jarreraren gaitasuna".
- Dinamika praktikoa "Zirrindolak", hiru lider ezberdinek gidatuta (eraginkorra, neutrala eta eraginkor ezakoa) erakusteko.
- Pertsona baten motibazioan lider mota ezberdinek duten eragina.

15:00-17:00

- 360oko lidergo inkestaren emaitzen ikuskatzea.
- Talde lana - teoria.
- Talde lanaren inguruko bideoak "Antzaren hegaldia", "Botila", etab.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu

udako
euskal unibertsitatea

- Dinamika praktikoa "Sokatiran".

-Irakasleak:

- Jabier Lertxundi. Ekonomian doktorea eta Soziologian lizentziatua. SPRI y EUSKALIT-ek bultzatutako proiektu berritzaileak gauzatzeko aholkulari homologatua. Itzarri Consulting-eko aholkularia.
- Ohiane Eriz Egidazu. Enpresen zuzendaritza eta Administrazioan lizentziatuta. Itzarri Consulting-eko kidea.
- Jennifer Soubies. Lidergo eta motibazioan aditua. 5S sistemen ezarpenean homologatua Euskaliten. Itzarri Consulting-eko aholkularia.

17:30-19:00

Hitzaldia: "Ideia batzuk krisi madarikatu hau gainditzeko."

Irakaslea: Jabier Lertxundi, Itzarri Consulting.

Etxebizitzaren zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen erabakietara

09:00-10:00

Etxe barruko gai toxikoek osasunean duten eragina.

Irakaslea: Amaia Iriarte Arenaza. Medikua eta homeopata.

10:00-11:15

Instalakuntza elektrikoak, apantailamenduak.

Irakaslea: Asier Arregi Hernandez. Ingeniari agronomoa, geobiologian aditua, UEUKidea.

11:30-13:30

Etxe barruko landareak.

Irakaslea: Jakoba Errekondo Saltsamendi. Agronomo eta paisajista.

Weka, ikasketa automatikorako tresna: datuetatik erabakietara

09:00-14:00

-Gaiak:

- Datu meatzaritzari sarrera.
- Datuen prozesaketa eta ikuskatzea.
- Ikasketa automatikoa; sailkapena eta taldekatzea eta haien ebaluazioa.
- Weka erabiliz esperimendu zamatsuak egiteko aukera.

-Irakaslea:

- Txus Perez de la Fuente. Informatikan doktorea, Ikasketa automatikoan aditua, UPV/EHUko irakaslea eta UEUKo kidea.

Hizkuntzalari Euskaldunen 1.Topaketak: egungo ikerlerroak

08:45-09:00

Dokumentazioa jasotzea.

09:00-09:15

Agurra.

09:15-09:45

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu
udako
euskal unibertsitatea

Hitzaldi gonbidatua: "Igarri, ikertu, jakin?".
Irakaslea: Iñaki Segurola Amutxastegi.

09:45-10:45

Komunikazioak (I):

- Hizkuntzaren didaktikak Gasteizko Irakasle Unibertsitate Eskolan duen erronka nagusi bat. Irakaslegaiak ahozko gaitasunetan trebatzea.
Irakaslea: Amaia Alvarez eta Edu Zelaieta (UPV-EHU).
- Ahozkotasunaren printzak Koldo Mitxelenaren idatzietan.
Irakaslea: Agurtzane Azpeitia (Mondragon Unibetsitatea) eta Elixabete Perez (Deustuko Unibertsitatea).
- Ahozko tradiziozko corpuserako lehenengo urratsak.
Irakaslea: Asier Sarasua (Badihardugu Euskara Elkarte).

10:45-11:15

Atsedena.

11:15-13:35

Komunikazioak (II):

- Goi-nafarrera arkaiko eta zaharreko testuen edizio eta azterketa berrirantz.
Irakaslea: Urtzi Reguero(UPV-EHU).
- Euskal subjektuaren eta ergatibo kasu markaren identifikazioa eta jabekuntza batxilergoan. Irakaslea: Berta Alcalde (UPV-EHU) .
- Osagarrien markapen bereizgarria euskal hizkeretan.
Irakaslea: Ane Odria (UPV-EHU).
- Ergatibotasuna, iragangaiztasuna eta aditz laguntzailearen hautaketa euskal hizkeretan.
Irakaslea: Ane Berro (UPV-EHU).
- Informazio egitura eta kuantifikatzaileen interpretazioa.
Irakasleak: Urtzi Etxeberria eta Aritz Irurtzun (CNSR-IKER).
- Euskal alokutibora joan-etorria.
Irakasleak: Aitor Lizardi eta Manex Munduate (UPV-EHU).
- Gazteak lagun artean idazten.
Irakasleak: Elixabete Perez eta Esther Zulaika (Deustuko Unibertsitatea).

13:35-15:00

Bazkaria (lunch).

15:00-16:20

Komunikazioak (III):

- Euskarazko testuen sinplifikazio automatikoa.
Irakaslea: Itziar Gonzalez Dios (UPV-EHU).
- EPEC corpora predikatu mailan etiketatzeko eta ustiatzeko oinarriak: BVI, EPEC-RoISem eta e-ROLda.
Irakaslea: Ainara Estarrona (UPV-EHU).
- Ezagutza linguistikoa Ingelesa-Euskara itzulpen automatikoko sistemen garapenean.

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org

Irakaslea: Nora Aranberri (UPV-EHU).

- BASYQUE: hizkeren arteko aldakortasun sintaktikoa aztertzeko aplikazioa.
Irakasleak: Gotzon Santander, Xan Aire, Larraitx uria eta Ricardo Etxepare (CNSR-IKER / UPV-EHU, IXA).

16:20-16:30

Atsedena.

16:30-17:50

Komunikazioak (IV):

- Hizkuntz aldakortasuna: Euskara Baturanzko joera elkarrizketen bidez azterturik.
Irakaslea: Orreaga Ibarra (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).
- Busturialdeko hizkuntz aldakortasuna denboran eta espazioan.
Irakaslea: Ariane Ensunza (UPV-EHU).
- Hizkuntza-aldakortasuna Nafarroa ipar-mendebaleko euskararen.
Irakaslea: Oihana Lujanbio (UPV-EHU).
- Aldakortasun sintaktikoa euskarazko perpaus nominalizatuetan.
Irakaslea: Maia Duguine (UPV-EHU).

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI41](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**